

**FEDEAREN URTEA**

“Porta Fidei” agiriaren bidez, Aita Santuak Eleiza osoaren-tzat “Fedearen Urtea” erabaki dau ospatzea. Aurtengo urriaren 11n hasi da. Gogoan izan dau Benedikto XVI.ak egun berean bete dirala 50 urte Vatikanoko II. Kontzilioa hasi zala eta baita 20 urte Eleiza Katolikoaren Katixima argitaratu zala ere. Eta datorren urtean, azaroaren 24an, Kristo Erregearen egunean, amaituko da “Fedearen Urtea”. Paulo VI.ak aldarrikatutako 1967. urtea ere antzekoa izan zan. Nahiz eta orduko eta gaurko egoerak oso desberdinak izan bai gizartean eta bai Eleizan, beti daukagu premia aldiko kulturaren arabera fedea bizi eta azaltzeko. Beti ere, Urte honen helburu nagusia, fedearen edertasuna eta poztasuna eta gozamina iragartea izango da kasu batzuetan eta beste batzuetan berraurkitzea.

**Caritas Christi urget nos**

Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu Barri Ona iragartera. Beti bezala horixe da izan ere Eleizaren misio ederrena. “Zoa-ze eta ikasle egizuez laguntalde guztiak”. Mandatu hau betetea izango da Eleizaren eginkizunik hoberena. Ezinbestekoa da eliztarrantzat ebanjelizatzea. Esperientziak erakusten dauanez, “fedea indartzen da, besteei emonaz”, dino Benedikto XVI.ak. “Maitasunaz eragindako sinismenak”, persona osoa, burua eta bihotza, goitik behera aldatzen ditu. Beste estilo bateko pertso-na bihurtzen da. “Kristo hilen artetik Aitaren aintzarako barriro biztu zanez, geuk ere bizikera barri bat bizi daigun izan da”.

“Ezin dogu gatza gazatzen itzi, ezta argia imillaunpean ipini ere”. Samariako emakumearen antzera, gaur egun ere, bat baino gehiago dira, Jesusek emon dagian uraren egarri direnak. Jesusen erronka mahai gainean daukagu: “Lan egizue, ez alperrik galtzen dan janariagaitik, betiko bizitzaraino irauten dauan janariagaitik baino”. Behin Jesusi bere entzuleak egindako galdera honek badau gaurkotasuna: “Zer egin behar dogu Jaungoikoaren lanak egiteko?” Eta Jesusen erantzuna oso argia da: “Hauxe da Jaungoikoaren egitekoa. Berak bialdu dauanagan sinistu dagizuela”. Kristo Jesusengan maitasun eta uste guztia jartean, aurkitzen da benetako askatasuna, poza eta zoriona.

Horixe besterik ez da izango “Fedearen Urtearen” asmorik behinena. “Sinismenaren Iturri eta Helburu dan Jesusengan begiak jartera” deika jatorku “Fedearen Urtea”. Horretarako hainbat proposamen ditugu aurrean. Nik neuk, “Porta fidei” agiritik hiru aukeratuko neukez. Bata izango litzake, fedearen historiari begiratzea. Bestea, fedearen eta maitasunaren uztardura. Eta hirugarrena, “Eleiza Katolikoaren Katixima” sakon hausnartzea.

## **Fedearen historiari begiratzea**

Derrigorrezkoa dogu Fedearen historiari begiratzea. Ez gara atzo goizekoak. Badakigu gure historian santutasuna eta pekatua, garia eta bedar txarra, solo berean nahastuta ageri dirala. Jesusek berak ere garbi erakusten deusku hazi ona eta galbedarraren parabolari. Txarrena ez da gari artean galbedarra aurkitzea, txarrena galbedarra besterik ez ikustea da. Horixe da gaurko kritikari askoren arriskua. Beti galbedarra oihukatzen dihardue eta ez dira gauza Jesusen Eleizaren barnean hazi ona badagola, santutasuna ez dala inoiz falta izan konturatzeko. Eleizaren fruiturik ederrena santuak ditugu. Santuen historia dala Eleizaren egiazko historia. Fedearen historia ikusteko, Santuak egindako historiari begiratzea da zuzenena, egokiena eta bidezkoena. Esaterako, Athletic-en historia jakiteko, ez da

nahikoa, oraingo Athletiren jokalarien futbola kontuan izatea, badira hor Athletic-en historian zehar, hainbat jokalaria txapel-dun handi, eta zuzena da horreen historia aipatzea ere, eta ez bakarrik Athletic-en jokalaria eskasena beti zabaltzea.

Eleizaren historian ere bardin. Galbedarra bai, baina santutasuna ugariagoa izan da eta izango. Bidezkoa da, ba, santutasunean Kristo Jesusen estilora bizi izan diranei begiratzea, euron antzera pekatariok ere jokatzen ikasteko. Horrexerri deitzen jako Kristogana itzultzea.

Santutasun zerrendan, Andra Maria agertzen da lehendabizi. Fedeari esker, Jaungoikoaren aingeruari baietza emongo deutso. “Egin bedi nigan zuk dinozuna” izango da beraren erantzun jatorra. Eskerrak fedeari, Jaungoikoa goratzen ariko da bere lehengusinari egindako ikustaldian. Eskerrak fedeari, jarraituko deutso bere Semeari ageriko bizitzan. Eskerrak fedeari, zutik egongo da bere Semearen kurutze ondoan. Eskerrak fedeari, bere Semearen berbak eta egiteak gordeko ditu bihotz barnean. Eskerrak fedeari, bere Semearen ikasleekin batera alkartuko da otoitzean Espiritu Santuaren etorrera gertatzen. Santutasun zerrendan, bigarren tokian Jesusen apostoluak aipatzen ditu Aita Santuak. Eskerrak fedeari, bertan itziko dabez gauza guztiak Jaunari jarraitzearen. Eskerrak fedeari, Jaungoikoaren Erreinua Jesusengan egiten dala presente kon-turaturiko dira. Eskerrak fedeari, Jesusegaz komunitatean bat eginda biziko dira. Eskerrak fedeari, joango dira munduan zehar odola emoteraino Jesusen Barri Ona iragartera.

Jarraian lehenengo kristauen lagunartea gorai-patzen dau. Eskerrak fedeari, “guztiak bat ziran, eta guztia alkarrentzat euken. Eta ondasunak saldurik, ordaina guztien artean banatzen eben, bakoitzaren beharrianari egokionez. Eta egun oro gogo batez Jauretxera joaten ziran; eta etxeetan ogia zatiturik, alaitsu batera jaten eben, Jaungoikoa goraturik eta herriaren

ederra irabazirik. Eta salbatuak izan behar ziranak egunean-egunean ugaritzen ebazan”.

Ondoren martirien paregabeko testigantza dakar gogora. Eskerrak fedeari, Jaunagaitik emongo dabe euren bizia. Eskerrak fedeari, arerio gaiztoei parkatuz emongo dabe euren odola. Zenbat kasu miragarri martirien zerrendan!

Gero erlijioso eta erlijiosak datoz. Asko eta asko ditugu, eskerrak fedeari, “behartsuei Barri Ona emoten, giltzapetuei askatasuna, itsuei ikusmena, zapaldueti askatasuna eta Jaunaren errukizko bizitza iragarten” fin aritu izan diranak.

Santutasun zerrendan, beste hainbat eta hainbat, gizon eta emakume, zahar eta gazte eta ume, “inork ezin zenbatu eiketan enda, jatorri, herri eta hizkera guztietako talde handi, bizitza-liburuan euren izenak daukezanak” ditu gogoan Benedikto XVI.ak. Eskerrak fedeari, bai familian, bai eguneroko ogibide guztietan, gizaldiak etorri eta gizaldiak joan, bizi izan dabez pozaren pozez Kristo Jesusen Zoriontasunak.

Guztiok merezi dabe, “Fedearen Urtean” zehar, gure esker ona eta gure txaloak. Eurok diralako Eleizaren ispilu garbienak.

## **Fedea eta maitasuna uztartuta**

Fedea eta maitasuna uztartuta bizitzera datorkigu “Porta fidei” agiria. Fedeak maitasun barik ez dau fruiturik emoten. Maitasuna fede barik, zalantzaz beteriko sentimendu bihurtzen da. Batak bestea eskatzen dau. Guzti hau frogatzeko, Aita Santuak Itun Barriko testu eder bi dakaz. Bata Santiagoren idazkian dator. Bestea, ostera, San Mateoren ebanjelioan.

Galdezka datorkigu Santiago apostolua: “Zer balio deutso, ene anaiok!, nik badot sinismena dinoanari, egintzarik ez badau? Halakoa sinismenak salbatu ete daike? Anaiak nahiz arre-baren bat biluzik eta eguneko janari barik egon ezkerok, zuetarikoriko norbaitek, zoaz bakean, berotu eta ase zaitez, esan bai

baina gorputzak behar dauana emongo ez balegio, hori zertarako litzakio on? Bardin sinismena ere: egintzarik ez badau, hilda dago beragan. Baina norbaitek hauxe esan daike: zuk sinismena dozu; nik, barriz, egintzak. Erakutsi egidazu zure sinismena egintza barik, eta nik neure sinismena neure egintzetatik erakutsiko deutsut”.

Testu ederra dogu berau, baina oraindino sakonagoa dogu beste hau. Jesusen berbak doguz: “Benetan dirausuet, nire anaia honeetariko txikiren bati egin zeuntsena, neuri egin zeunsten”. Aita Santuak bein eta barriro eskatzen deusku fedez eta maitasunaz lotuta jokatzeko. Horrela jokatuz lortu geinke “zuzentasunaren bizi-lekua izango diran zeru barri eta lur barri baten zain egotea”.

### **Eleiza Katolikoaren Katixima**

Orain hogeitau urte kaleratu zan “Eleiza Katolikoaren Katixima”, jarten deusku Aita Santuak ordezkazekineko lagungarri bezala gure fedearen edukia hobeto ezagutu eta sakon hausnartzeko. Duda barik, Vatikanoko II. Kontzilioak emon dauan fruiturik ederrenetarikoa dogu Katixima hau. Hortxe aurkitzen dogu Eleizak historian zehar sinistu, irakatsi eta bizi izan dauana. Kredoaren azalpenaren bidez Jaunaren aurpegia ikusten dogu. Sakramentuen eta otoitzaren bidez beraren presentzia ospatzen dogu eta gizalegez Kristoren estilora jokatzen ikasten dogu.

Eleiza Katolikoaren Katiximaren orrietan ez ditugu aurkituko teoriak, Eleizak bere barnean bizi dauan Jauna baino. Jaunarekin aurkitzen gara. Jaunarekin egiten dogu topo. Horretan laguntzen deusku Eleizaren Katiximak. Eleizak ez deutse inoiz ere bildurrik zientziaren erronkei. Ez dago ezelako borrokarik zientziaren eta fedearen artean. Bakoitza bide desberdinetatik Egia Berberaren bila doazelako. Eragozpenak eta oztopoak eta erasoak ez dira faltako. Baina Aita Santua itxa-

ropentsu agertzen da. Eta bi testu eder dakaz gogora. Biok Eleizaren zutabeen esperientziak ditugu, hau da, San Pedro eta San Paulorenak.

Gure gaurko sufrimenduak eta eragozpenak eta larrialdiak gaintitzeko, San Pedroren berbak kontsolagarriak ditugu: “Hori dala-eta, poztu egiten zaree orain, une baten behintzat, beharbada, tentaldi batzuetan atsekabetuta zagozen arren: zuen sinismen garbia, sutan garbitutako urre galkorra baino askozaz bikainagoa dana, Jesukristoren agertaldian gorapenerako, aintzarako eta osperako gai bihurtu daiten. Bera maite dozue zuek, ikusi ez dozuela ere, eta Bera ikusi ez arren, orain Beragan sinisten dozue eta esan ezinezko poz zoragarriaz alaitzen zaree, zuen sinismenaren fruitua dan arimen osasuna jaritsirik”.

Eta ondoren San Pauloren esperientzia ederra: “Kristogaitik gaixoardietan, irainetan, beharizanetan, larrialdietan poz-pozik nabil: makala nazala uste dodanean, indartsu naz-eta”.

“Fedearen Urteak”, lagundu deigula Kristo Jesus bilatzen eta aurkitu ondoren, jarraitu daigula bilatzen. “Christus Semper maior”.

*A. Olea*